

Erabiliko ditugun funtsezko baliabideak 3 multzotan sailkatu ditugu:

1. Baliabide fisikoak, hau da, egin beharrekoa gauzatzeko ezinbesteko materialak.
2. Giza baliabide eta baliabide intelektualak guk geuk dauzkagun abilezia eta titulazioak dira.
3. Finantza baliabideak enpresa aurrera eramateko dugun kapitala da.

Orain hauetan sakonago murgilduko gara:

1. Lehenik **baliabide fisikoak** ditugu. Haurrak garraiatzeko autobusa behar izango dugu. Egun arruntetan zentrorra eramateko eta egun berezietan ibilaldietara eramateko. Autobus hau ez dute haur guztiek erabili beharko. batzuk hurbil biziko baitira. Inguruko herri batean bizi den haurren bat apuntatu nahi izanez gero, aukera emango diogu autobusa erabiltzeko. Ibilaldietarako aldiz, garraioa denek erabiliko dute. Honez gain ordenagailuak ere behar izango ditugu kartelen diseinuak eta publizitatea kudatzeko.

Sare sozialak antolatzeko ere garrantzitsua izango da elementu hau. Mugikorrek ere egin delakegu lan hau baina ordenagailuak beste erraztasun bat emango digu hauen diseinu zein erabileran. Multzo honekin bukatzeko, eskulanentzako materialak beharko ditugu, hau da, kartulinak, arkatzak, guraizeak, margoak.... Eta gero jolasak egiteko beste material batzuk ere, ipuinak, puzzleak, baloiak....

2. Multzo honetan, ariketak sortzeko gure sormena beharko dugu. Ariketa hauen bitartez, beraien irudimena eta trebeziak garatuko dituzte, bide batez gure baloreak transmitituz. Web orrialdea eta kartel publizitarioak ere gure sormenarekin sortuko ditugu, hemen diseinu egokia, erakargarria izatea, komunikabide erraza egotea eta abar izango dira oinarri.

Horrez gain, gure abilezia beharko dugu zerbitzu eskaintzerako orduan. Eskoletan, bileretan. Ondo saldu beharko dugu, informazioa guztia xehetasunez azalduz eta gure baloreetan oinarrituz.

Lankide bakoitzak duen prestakuntzari dagokionez, Ikerrek eta Xabik monitoretza titulua dute. Haurrekin nola moldatu oso ondo dakite, eta ekintzak egiterako orduan ere erraztasuna dute hauek pentsatzeko eta erakargarriagoak bihurtzeko.

Paulek ingelera titulua duenez, beste herrialde batetik datorren haur batekin komunikazioa erraztuko digu, haur honi gure kultura interesatzen bazaio eta ikasi nahi badu, hizkuntza ez da arazo bat izango .

Ibonek, futboleko entrenatzaile, prestatzaile fisiko eta nutrizionista tituluak ditu. Kirol tituluekin, ekintza egokiak egiteko sormena eta esperientzia izango dugu. nutrizio tituluekin hurrei jateko era egoki eta ohitura egokiak irakatsiko dizkie ere.

Horrez gain, laurok haur hezkuntzako goi maila titulua izango dugu, haurren heziketa egokirako, eta arrisku egoerak saihesteko ( lehen laguntzen ezagutzak ditugulako).

Gure enpresan lanaren antolaketa garrantzitsua izango da, horregaitik, laurok zeregin desberdinak izango ditugu, Xabier eta Ikerrek monitore titulua daukatenez horretan arituko dira. Haurrentzako ekintza desberdinak sortuko dituzte eta haien zaintzaz arduratuko dira. Paul eta Ibon kontuak eramaten trebeak direnez, alde ekonomikoaz arduratuko dira. Hau da, adimnistrazio lana egingo dute.

Gurasoei deiak, haurren matrikulazioa eta kontu guztiak lauron artean eramango ditugu. Bestetik, laurok oratoria klaseetara apuntatuko gara, gure hitzaldiko informazioa hobetzeko helburuarekin.

3. Azken multzoa finantza baliabideak dira. Hasieran, bankuarekin hitz egingo dugu kreditu txiki bat eskatzeko, gehien bat autobus zerbitzua eta lokalaren alokairua ordaindu ahal izateko. Gero gure aurrezkiekin eskulanen materiala eta jolasak erosiko dutugu; kartulina, pilotak, arkatzak... Baina etxean ditugun materialak birziklatuko ditugu eta hauek erabili; horrela ahalik eta gutxien gastatzen saiatuko gara.

Hiru baliabide mota behar izango ditugu

Baliabide fisikoak	Baliabide intelektuala eta giza baliabideak	Finantza baliabideak
Autobusak	Sormena	Kreditua (6.500 euro)
Ordenagailuak	Ingeles titulua	Gure aurrezkiak (1.000 euro bakoitza)
Eskulan Materiala	Haur hezkuntza titulua	X
Jolasak	Monitoretza titulua	X
Lokala	Nutrizio eta kirol tituluak	X